



MINTZAPRATIKA PROGRAMAK: EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEKO TRESNA ERAGINKORRAK

Oskar Zapata

Topaguneko Mintzapraktika Saileko arduraduna
Helbide elektronikoa: mintzapraktika@topagunea.com

Artikulu hau, 2007. urteko otsailean
HIZKUNEA soziolinguistika agerkarian
argitaratutakoaren laburpena da

SARRERA

Azken urte hauetan hala administrazioan nola euskalgintzan nolabaiteko kezka sortu da euskararen erabileraren inguruan. Garai batean zegoen ustea eta desioa (ezagutzak erabilera ekarriko zuela) ez zela zuzena ikusi da: ezagutzak ez du erabilera bermatzen. Erabilera sustatzeko politika eta programa eraginkorrak ezinbestekoak direla ikusi dugu bai euskalgintzan baita Administrazioan ere.

Euskara Elkarateek gizarte esparru guztietan euskararen erabilera sustatzea izan dute beti helburu nagusia. Gizarte esparru guztietan sustatu behar da euskaren erabilera, hala legez arautu daitekeen horietan nola *erabilera askeko* guneetan. Biak dira garrantzizkoak baina orain arte gure ustez erabilera askeko guneetan egin beharreko lanari ez zaio duen garrantzia aitortu.

Administrazioaren eremuan erabilera sustatzea kezka bihurtu dela nabaria da, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005 eta 2009 urte bitartetarako definitutako hizkuntza politikak euskararen erabilera sustatzea egiteko nagusi moduan nabarmentzen duenean.

Topagunearen ustetan *erabilera askeko* guneak euskalduntzea lehentasunezko gaia da, batetik neurri handi batean hizkuntzaren transmisioa

(familia, lagunartea...) horietan gertatzen delako, eta bestetik hizkuntza komunitatearen konpaktaziorako bidea bertatik hasten delako (familia, lagunartea, auzokoak, elkarteetako lagunak,...).

Aipatutako esparru horiek pertsonen bizitza pribatuarekin lotuak daude eta horietan legeek eta arauak eragin gutxiago dute. Esparru haue-
tan, beraz, hizkuntza ohituretan eragiteko bestelako bideak jorratu behar dira: eskaintza oparoa, erakargarritasuna, gozamina, praktikotasuna, erosotasuna, sentiberatzea,...

Euskara elkarteetan eta Topagunean lantzen ditugun ildoen arteko bat *Mintzapraktika* jarduerena da. Hortaz gain, euskaltegi, ikastetxe eta Administrazio publikoak ere parte hartzen ari dira egitasmo hauen kudeaketan eta sustapenean. *Mintzapraktika programen* oinarria, euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak, hitz egiteko ohitura ez dutenekin elkartzea da.

Euskal Herrian, *Mintzapraktika* programen abiapuntua Donostian kokatzen da, 1993. urtean Donostiako *Bagera* euskara elkarteak *Mintzalaguna* egitasmoa jarri zuenean. Geroztik, etengabeko zabalkundea bizi izan dute programok, gaur egungo zenbakietara iritsi arte: 2006/07 ikasurtean 1750 bat lagun ari dira 40 herri eta eskualdetan.

Urteik urtera egitasmoen eta partaideen kopurua hazten joan da, modu progresiboan. Baina azken urteotan izan dute hazkunde nabarmena egitasmoek (azken hiru urteetan egitasmo eta partaide kopuruak bikoiztu egin dira). Datu hauek argi adierazten digute jendearen gustuko programak direla hauek, motibazio ezberdinetatik abiatuta *mintzapraktika* egitasmoetara gero eta gehiago hurbiltzen baitira. Era berean, antolatzaileek tokiko euskarazko harreman sareak sortzeko ekimen baliagarritzat hartu dituzte *Mintzalagun*, *Berbalagun*, eta *Mintzakide* egitasmoak.

Bilakaera aztertuta, pentsatzekoa da hurrengo urteetan ere egitasmo berriak sortu eta partaide gehiago erakartzen jarraitu ahal izango dela. Horretarako, aurreikuspenak zabalkunde plan batean jaso eta elkarlanak hitzartzeari ekin diote zenbait eragilek, tartean Topaguneak.

KOKAPEN TEORIKOA

Hizkuntzaren erabileran eragiteaz ari garenean, hainbat ikerketa eta adituren iritzi izaten ditugu aintzat eta horietan oinarritu ohi ditugu gure programak. Batzuetan modu kontzientean egin da hori, beste batzuetan intuizioz, baina horrek ere balio du, intuizioa inguruaren behaketan oinarritua egoten baita gehienetan eta bertatik jasotzen baititugu egitasmoak sortzeko adierazle egokienak.

Edonola, egoki iritzi diogu zenbait adituren erreferentziak hartzeari, *mintzapraktika* egitasmoen oinarriak azaltzeko pista interesgarriak ematen baitituzte.

Euskara elkarteek J.M. Sánchez Carrión “Txepetx”¹en iturritik edan dute. “*Un futuro para nuestro pasado*” liburuan jasota dagoen bere doktore

Topagunearen ustetan erabilera askeko guneak euskalduntzea lehentasunezko gaia da, batetik neurri handi batean hizkuntzaren transmisioa (familia, lagunartea...) horietan gertatzen delako, eta bestetik hizkuntza komunitatearen konpaktaziorako bidea bertatik hasten delako (familia, lagunartea, auzokoak, elkarteetako lagunak,...).

Urtetik urtera egitasmoen eta partaideen kopurua hazten joan da, modu progresiboan. Baina azken urteotan izan dute hazkunde nabarmenena egitasmoek (azken hiru urteetan egitasmo eta partaide kopuruak bikoiztu egin dira). Datu hauek argi adierazten digute jendearen gustuko programak direla hauek, motibazio ezberdinetatik abiatuta mintzapraktika egitasmoetara gero eta gehiago hurbiltzen baitira.

tesian hizkuntzaren ikas prozesuan parte hartzen duten hiru elementuak **ezagutza, motibazioa eta erabilera** direla azaltzen da. “Txepetx”ek azaltzen dituen hiru faktoreak gurera ekarrita, **motibazioa** izango litzateke hizkuntza bat ikastera edo hizkuntza batean irautera bultzatzen duten arrazoiak, desioak, emozioak edo interesak; **ezagutza**, hizkuntzaren funtzionamenduz jabetzeko prozesua zein ahalmena; eta **erabilera**, hiztun komunitatearen esparru guztietan eta hizkuntza funtzio guztietan jardutea.

Mintzapraktika egitasmoen bidez hiruretan eragin nahi dugu: motibazioan eragin nahi dugu hizkuntzari bere funtzio komunikatiboa emanez, modu informalean eguneko kezkak, pozak, sentimenduak konpartitzeko aukera izanik hizkuntzarekiko atxikimendua areagotu egiten delakoan. Ezagutzan, euskara maila hobetu nahi/behar dutenen ikas prozesua azkartzeko eta osatzeko klasetik kanpo, kalean, modu informalean euskaldunekin elkar ekintzan gaitasuna hobetzeko aukera emanez. Eta, erabileran eragin nahi dugu elkar ezagutzen ez diren pertsonen artean modu naturalean sortuko ez liratekeen euskarazko sare berriak, lagun berriak... osatzeko aukerak sortuz.

Bestalde, egitasmoa “kalean” garatzen dela kontuan hartzen badugu, tokiko paisaia linguistikoan eragiteko aukera ere ematen dute, beti ere, hiztun talde informalean bidez.

Gune askea eta ekintzaren izaera ez-formala azpimarratu nahi izan dugu eta horren harira hona ekarri nahi dugu Pello Jauregi² ikerlariak “Gazteak eta euskara Lasarte-Orian II” ikerketan plazaratu zuen hausnarketa: “Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek, eskolaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalean batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura”. *Mintzapraktika programen* bidez hori da, hain zuzen ere, hiztun helduei eskaini nahi dieguten aukera.

Motibazioari dagokionez, esan behar dugu arlo konplexua dela. Nola asmatu motibazioetan eragiten? Pertsonen aukera eta jokabideetan hizkuntza ohituren aldaketa eragin nahi dugu, baina nola egiten da hori? Daniel Golemanek “emoziozko adimenaren”³ teoria bultzatu du. Haren arabera, pertsonengan aldaketa eragitea hainbat faktoreren baitan dago. Hizkuntzaren erabilera ohiturak aldatzean Goleman-en ustez abilezia teknikoek baino (hau da hizkuntza gaitasuna, edo ezagutza edo hau ikasteko duen koefiziente intelektuala...) abilezia emozionalek izango dute garrantzia edo eragina (euskara erabiltzeak sortzen dion sentsazioa, euskarak suposatzen dizkion lotura afektiboak, emoziozko aldaerak...). Golemanen ustez, gainera, bi abilezia hauek proportzio desorekatuan banatzen dira: abilezia teknikoek % 20ko eragina duten heinean abilezia emozionalek % 80ko eragina izango dute.

Euskara elkarteetan euskara erabiltzearen hautua hurbiltasunetik, gozamenetik bultzatu nahi dugu. Ez diogu erabiltzaileari zama gehigarri

bat eman nahi. Bizipen positibotatik nahi dugu euskarara erakarri. Harreman sare berriak euskaraz sor daitezela nahi dugu. Horregatik antolatzen ditugu kultur emanaldiak, ikastaroak, haur eta gazteentzako programak, mendi irteerak eta jaiak, eta horregatik ekoizten ditugu euskarazko komunikabideak.

Mintzapraktika programen kasuan partaideen artean sortzen den harremana berezia da, modu askean sortzen da, borondatezkoa da, besteak ezagutzea eta haiekin euskaraz gozatzea da bilatzen duguna, harremana afektiboa da, emozionala.

Golemanen teoriari erreparatuz gero, motibazio emozionalak hizkuntza bat aukeratzeko duen garrantzia eta "Txepetx"ek hainbestetan aipatzen duen motibazioa lantzeko bide emankorra izan daitekeela uste dugu eta, osagarriak diren aldetik, *Mintzapraktika programei* etekin handiago ateratzeko bide izan daitekeela uste dugu.

Izan ere, *Mintzapraktika programetako* partaideek ongi pasatzen badute, emozio positiboak sortzen bazaizkie (harreman berriak egin, eguneroa konpartitzeko tokia topatu, gustuko ekintzetan parte hartzeko aukera ikusi, autoestimua igo...) jarraitzeko gogo sortuko zaie eta horren ondorioz euskara erabiltzeko aukerak ugartu egingo zaizkie eta horrenbestez hizkuntza erabiltzeko ohituretan eragitea errazagoa izango zaigu.

METODOLOGIAREN OINARRIAK

Orain arte azaldutako guzti horretatik sortzen dira *Mintzapraktika egitasmoak*. Herri gehienetan dago euskarazko harreman sare osatua duen jende multzoa (ohiko harremanak euskaraz izaten dituen, lagunartean, dendatan, familian, administrazioan,...); baita euskarazko harreman sare horietan parte hartzeko aukera gutxi dituztenak ere. Euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duen jendea askotarikoa da: euskara ikasten ari direnak, euskara inoiz ikasita ere erabili ez izanagatik abilezia galdu dutenak, inguruan hitz egiteko aukerarik ez dutenak edota hirira iritsi berriak direnak,... eta gure ustez horiengana guztiengana iristeko modua hau izan daiteke: sare berriak eskaintzea, harreman sare ez-formaletan eragitea, zaletasunen inguruko erabilera guneak eratzea,... azken batean euskaraz bizitzeko aukerak ugartzea.

Eta nola laguntzen da helburu horiek lortzen? Programen funtzionamendu simple baina eraginkorraren bitartez: Taldetxoak sortzen dira (hirukoteak, laukoteak, boskoteak), zaletasunak, adinak, bizi-esperientziak,... kontuan hartuz. Talde horietan ezaugarri ezberdinetako jendea elkartzen da (batzuek ohiko euskarazko harremanak dituzte eta beste batzuek ez) eta konpromiso bakarra eskatzen zaie: astean behin gutxieneko denbora batez elkartzea. Hori da egitasmoak eskatzen duen konpromiso maila bakarra. Hortik aurrerako guztia taldekideek beraien artean arautzen dute, beren harremanaren barruan.

Mintzapraktika egitasmoen bidez hiruretan eragin nahi dugu: motibazioan eragin nahi dugu hizkuntzari bere funtzio komunikatiboa emanaz, modu informalean eguneko kezkek, pozak, sentimenduak konpartitzeko aukera izanik hizkuntzarekiko atxikimendua areagotu egiten delakoan. Ezagutzan, euskara maila hobetu nahi/behar dutenen ikas prozesua azkartzeko eta osatzeko klasetik kanpo, kalean, modu informalean euskaldunekin elkar ekintzan gaitasuna hobetzeko aukera emanaz. Eta, erabileran eragin nahi dugu elkar ezagutzen ez diren pertsonen artean modu naturalean sortuko ez lirakeen euskarazko sare berriak, lagun berriak... osatzeko aukerak sortuz.

*Hizkuntzaren erabilera
ohiturak aldatzean
Goleman-en ustez
abilezia teknikoek baino
(hau da hizkuntza
gaitasuna, edo ezagutza
edo hau ikasteko duen
koefiziente
intelektuala...) abilezia
emozionalek izango dute
garrantzia edo eragina
(euskara erabiltzeak
sortzen dion sentsazioa,
euskarak suposatzen
dizkion lotura afektiboak,
emoziozko aldaerak...).*
*Golemanen ustez, gainera,
bi abilezia hauek
proportzio desorekatuan
banatzen dira: abilezia
teknikoek % 20ko eragina
duten heinean abilezia
emozionalek % 80ko
eragina izango dute.*

Talde txikiak harremana errazten du, parte hartzeko aukera ematen du, gustuko gaien inguruan hitz egiteko aukera, ekintza gustagarrien bidez (poteoa, kultur ekitaldiak, mendia, kirola,...) hizkuntza tresna bihurtu eta ikuspegi positiboak sortu egiten ditu.

Bestelako ekintza batzuek (ekintza osagarriak) sare horiek zabaltzeko aukera ematen dute, talde ezberdinetako jendearen arteko harremanak sortuz (hau da, sare handiagoak ehuntzea) eta proiektu baten eta talde baten partaide direla sentiaraziz.

Ekintza osagarriak anitzak izaten dira, partaide denak, batean edo bestean gustura senti daitezen. Oro har, harremanak errazteko sortuak dira (kultur ekitaldiak, askaritzoak, irteerak, tailerrak, abesbatzak...) batzuk herrian bertan egiten dira programetako partaideen arteko elkar ezagutza sustatuz eta herriko gainerako euskaldunekin harremanetarako aukerak zabalduz; beti ere gero eta tokiko hizkuntza komunitate trinkoagoa sustatu nahian; beste batzuk beste herri edo eskualde bateko programetako gainerako partaideekin (hurbil dauden bi edo hiru egitasmoen partaideen artean harremanak sustatuz), eta azkenik badago Euskal Herri osoko *Mintzapraktika programetako* partaide guztiei zuzenduta dagoena: **Mintza eguna**. Aisialdia eta ekintza ludikoak uztartzen ditu eta, era berean, partaideek talde baten babesa sumatzen dute. Talde identitatea lantzeko aukera eskaintzen dute ekintza osagarri bateratuek.

ANTOLAKETA

Mintzapraktika egitasmoen kudeaketa eremua herria edo eskualdea izaten da normalean. Hurbiltasuna da egitasmoen ardatz eta oinarrietako bat, eta hurbiltasuna antolakuntzatik bertatik sustatzen da. *Mintzalagun* edo *Berbalagunentzako* erreferentzia hurbila izan behar da, bertatik bertara izan behar du.

Egitasmoa bultzatzen dutenak herrian edo eskualdean erreferenteak izatea garrantzitsua da eta *Mintzapraktika egitasmoetan* interesa izan dezaketzen guztiek egon beharko lukete: euskara elkarteak, euskaltegiak, ikastetxeak, administrazioa, ... Guztion artean egitasmoa elkarlanean antolatzek interes handia du, bakoitzak bere ekarpena egiten baitio programari bere ikuspegitik. Eta bakoitzak bere inguruan eta esparruan egitasmoaren zabalkundea egingo du. Esparru anitzetan topatuko dira, horrela mintzalagunak, berbalagunak edo mintzakideak.

Bestalde, elkarlana hitzetik hortzera erabiltzen den kontzeptua izaten da sarri, baina askotan ez dugu asmatzen nola eta zertarako egin. Mintzapraktika egitasmoek aukera paregabea eskaintzen digute, egitasmo zehatz baten gainean (guztion helburuetan ondo egokitzen dena gainera) elkarlan ariketa praktikoa bat egiteko.

ERRONKAK

Erronka aunitz ditugu etorkizunerako mintzapraktika egitasmoen arloan: dinamizatzaileen arteko koordinazioa hobetzea, programen aldaera berriak lantzea (proiektuak jendearen beharretara gero eta gehiago egokitzea), programaren eraginkortasuna modu zehatzean ebaluatzeko neurgailuak sortzea eta aplikatzea, eta noski, programak zabaltzea.

Zabalkundea modu progresiboan egin nahi genuke, Euskal Herriko txoko guztietara zabaltzeari interesa ikusten baitiogu. Hala ere, lehentasunak ondoko irizpideei jarraituz markatu ditugu: Populazio handiko hiri eta eskualdeak, "ia euskaldun" kopuru handia dutenak, kale erabilera baxua dutenak, "euskaldun" kopuru batez beste %50tik behera dutenak eta kale erabileraren neurketetan beherazko joera erakusten dutenak.

Mintzapraktika programak euskararen erabileran eragiteko egun dugun egitasmo eraginkorra eta preziatua da. Beraz, Euskara Elkartean eta Topagunean mintzapraktika egitasmoak eskaintzen duen aukera lantzen jarraituko dugu, tokian tokiko sustatzaileekin (hala nola euskaltegi sarea, ikastetxeak, elkarteak ...) elkarlanean gisa honetako egitasmoak martxan jar daitezen lan egiten.■

OHARRAK

1. "Un futuro para nuestro pasado" Claves de la recuperación social del Euskera y teoría social de las lenguas. Jose m^a Sánchez Carrion " Txepetx" 1987. urtean argitaratua.
2. Pello Jáuregui: soziologoa. "Kuadrillategi" ikerketa taldeko partaidea.
3. "Inteligencia emocional" Daniel Goleman. Editoriak Kairos 1995. urtean argitaratua.

Euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duen jendea askotarikoa da: euskara ikasten ari direnak, euskara inoiz ikasita ere erabili ez izanagatik abilezia galdu dutenak, inguruan hitz egiteko aukerarik ez dutenak edota hirira iritsi berriak direnak,... eta gure ustez horiengana guztiengana iristeko modua hau izan daiteke: sare berriak eskaintzea, harreman sare ez-formaletan eragitea, zaletasunen inguruko erabilera guneak eratzea.